TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0018

GOBERNU BATZARRA

2022.07.12

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Xabier Balerdi Tolosa
Xarles Iturbe Pasaban
Begoña Tolosa Mendia
Jose Mª Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko uztailaren hamabian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. **Akta hau onartzea: 2022ko uztailaren 5ekoa.**
2. **Onartzea, hala Tolosako Udaleko Harrera Eskuliburua, nola tutorearen harrera-gida.**

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO UZTAILAREN 5EKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko uztailaren 5ean egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA, HALA TOLOSAKO UDALEKO HARRERA ESKULIBURUA, NOLA TUTOREAREN HARRERA-GIDA.

I.- Langile berrien integrazio azkarra bermatzeko, Giza Baliabide Sailak premia ikusi zuen honako bi dokumentu hauek prestatzeko: Tolosako Udaleko Harrera Eskuliburua eta tutorearen harrera-gida.

Bada, harrera-eskuliburuaren helburu nagusia da udalean lehen aldiz lan egingo duten langileei informazio baliagarria ematea sartuko diren erakundearen ezaugarri nagusiei buruz; eta tutorearen harrera-gidak, berriz, helburu du tutoreei laguntza ematea Udaleko plantillan lehen aldiz sartuko direnei orientazioa eta laguntza ematen.

ESKU8a3b5e43-b3e7-46cc-98e0-bdd248c7dbb5

II.- Aurrez aipatutako dokumentu horiek komiteko kideekin negoziatu ziren eta, halaber, Udaleko zerbitzuburuei helarazi zitzaizkien, proposamenak aurkezteko epea utziz.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A BA K I D U

LEHENA.- Onartzea, hala Tolosako Udaleko Harrera Eskuliburua, nola tutorearen harrera-gida.

BIGARRENA.- Harrera-eskuliburua langile guztien eskura jartzea Giza Baliabide Sailean eta udal-sarean.

HIRUGARRENA.- Tutorearen harrera-gida Udaleko zerbitzuburu guztien eskura jartzea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:55ean.

ALKATEA **IDAZKARIA**

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8a3b5e43-b3e7-46cc-98e0-bdd248c7dbb5**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2022IGBA0018-2022-07-12 Gobernu batzarreko akta/2022-07-12 Gobernu

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ - 15924469M
Data / Fecha: 2022/07/13 16:02:31

Sinatzailea 2 / Firmante 2: 34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F)
Data / Fecha: 2022/07/13 20:38:18